Liburutegiak

2025EKO URTEKO TXOSTENA

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Larrabetzuko Liburutegia, Anguleri Kultur Etxean



Rose Main Reading Room,
New York Public Library

Liburutegiak, arimaren iruleentzat bazar handia

Urkiri Salaberria Gracia
Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendaria

Gaur goizean zerbaitek zauritu nau eta arima hautsita sentitu dut. Begietara begiratzen diot neure buruari, eta urratu bat daukat bihotzetik hurbil.

Kalera irten naiteke inork, a priori, antzeman gabe. Baina, deskuidatzen naizenez, urratu horrek arima osoa harrapa diezadake, eta arimarik gabe, azkenean, IAk lagundutako holograma batekin nahastuko naiz.

Zer egingo dut? Hurbilduko naiz botikinera edo jostunontzira? Edo hitzordua eskatuko dut Osakidetzan? Urratu honetarako irteera azkar bat behar dut. Adabaki bat edo botoi bat jarriko dut?

Ziur naiz egoera hau ezaguna egiten zaigula, zeren eta, egunero, liburutegia irekitzean, arima ziriak eginda batzuk topatzen baititugu aretoan zehar noraezean, bila: zetazko hariak, anezkaren haria irensten duten kanillak, karreteak, bobinak, kanuelak, botoi forratuak, kristalezko kontuak, kretonazko edo batistazko erretenak, satinezko zintak, orratz txikiak, ehungailuak, kakotxak, adababakiak, errematxeak, Libertyren oihalak... edo paspartu soil bat.

«Irakurketa on eta askearen bidez bakarrik lortzen dugu gure existentziaren bilbeak egia-tarteak izatea».

Arima ehuntzea eta osatzea bizitzak garamatzan ariketa bat da, eta irakurketa on eta askearen bidez bakarrik lortzen dugu gure existentziaren bilbeak egia-tarteak izatea.

Horregatik, liburuzain-lana hain da konplexua, hain ederra eta bitxia. Ezagutzen ez duen hurbilekoari zerbitzua da, gizadiarekiko maitasun isila, epaitzen ez duen, baloratzen ez duen, egunero arimaren irule guztietarako pentsatutako bazar handi hori lagundu eta prestatzen duen pertsona izatea da.



Azala:
Loegrafik, AArekin moldatua

2. or.:
Patrick Robert Doyle, Unsplash

4. or.:
ChatGPTrekin sortua

6. or.:
Guzel Maksutova, Unsplash

9. or.:
Magnific

10. or.:
Loegrafik, AArekin moldatua

12. or.:
Medialab, Tabakalera

16. or.:
Johnny McClung, Unsplash

18. or.:
Shayna Douglas, Unsplash

34. or.:
Lasse Jensen, Unsplash

36. or.:
Nmg Network, Unsplash

38. or.:
Trnava University, Unsplash

Kontrazala:
Magnific

Aurkibidea

Liburutegiak, arimaren iruleentzat bazar handia 3

Liburutegi eta Lege Gordailuaren Zerbitzua 6

Lege Gordailua 8

Atariak eta ateak,
sarearen lineako katalogoaren berritzea 10

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea 12

Sarea zenbakitan 13
— Gehien irakurritakoak 14
— Gehien ikusitakoak 15

Irakurketa-klubak 16

eLiburutegia 19
— Maileguak eLiburutegian 20
— Maileguak guztira, urteka 21
— Maileguak guztira, hilabeteka eta urteka 22
— Maileguak guztira, urteka eta hilabeteka 23
— Gaztelaniaz gehien mailegatutakoak 24
— Euskaraz gehien mailegatutakoak 25
— Maileguak udalerrika 26
— Maileguak 1.000 biztanleko 27
— 5.000 biztanletik gorako udalerriak 28
— 10.000 biztanletik gorako udalerriak 29
— Erabiltzaile berriak 2025ean 30
— eLiburutegiko erabiltzaileak 31
— Erabiltzaile berriak, urteka eta hilabeteka 32
— Aleak eLiburutegian 33
— eFilm 34
— Aldizkariak 36

Liburutegi Publikoen XII. Kongresu Nazionala 38



Liburutegi eta Lege Gordailuaren Zerbitzua

Liburutegi eta Lege Gordailuaren Zerbitzuaren eginkizunen artean dago, besteak beste, Euskadiko ondare bibliografikoaren kontserbazioa eta zabalkundea zaintzea. Zerbitzu horren ardurapean, etorkizuneko Euskadiko Liburutegirako biltzen dituen obrak eskuratzeaz gain, Euskadin dauden eta balio historiko edo kultural garrantzitsuak dituzten obra bibliografiko guztiak ere ezagutzea zaintzea barne hartzen dira.

Euskadiko Katalogo Kolectiboa

Misio honek bi proiektutan du isla praktikoa. Alde batetik, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoa ez ezik, Euskadiko Liburutegi Sistemari atxiki zaizkion gainerako liburutegiena ere biltzen duen Bilgunea Euskadiko Katalogo Kolectiboa[1] dugu. Horien artean, Euskadiko ondare-liburutegi eta liburutegi espezializatu asko daude, hala nola hiru unibertsitate garrantziuenak —EHU, Deustu eta Mondragon—, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-liburutegienak, eta hainbat erakunde handi, hala nola Eresbil edo, berriki integratuenak aipatzearren, Aranzadi Zientzia Elkartearena eta Sancho el Sabio Fundazioarena.

Katalogo horretan bertan, bigarren proiektuari dagokionez, Kultura Ministerioarekin lankidetzan egindako balio handiko beste funts batzuen katalogazioak ere finkatu dira, Hain justu ere Ondare Bibliografikoaren Katalogo Kolektiboa[2]. Lan sortzeko 1994. urtean hasi zen elkarlana, eta azken urteetan Bunielgo Marke-saren funtsa, Balmasedako Horcasitas Jauregitik datorrena, katalogatzeari ekin zitzaion,. Hirugarren kanpaina 2025ean gauzatu zen, eta gaur egun egitasmo horrek abian jarraitzen du.

Alabaina, oraino egiteke dagoen lana oso eskerga da, liburutegi ugari baitaude, batzuk izugarr aberatsak, batez ere erlijio-erakundeenak, baita elkarteen, kultura-elkarteen, jolas-zirkuluen eta historia luzeko beste erakunde anizenak ere, partzialki katalogatzeke edo modu oinarrizkoan katalogatuta daudenak.

[1] https://www.katalogoak.euskadi.eus/bilgunea

[2] https://ccpbe.cultura.gob.es/CCPB/ccpbopac/



Lege Gordailua

Lege-gordailuak argitalpenen aleak gordetzen ditu, kultura-ondarea babesteko eta haien kontsulta ahalbidetzeko.

Online eskatzen da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez.

Liburuzain guztiok dakigu zer den eta zertarako den. Badaukagu zer esan asko honen inguruan eta hemen bizi dugun egoerari buruz, baina laburbiduz eta jarrera baikor batetik: badugu zer hobetu.

Bada ez bada gogoraraziko dugu izapidetza administratibo honen azpiko helburu nagusia tokiko preserbaziorako bibliografi-funtsa sortzea dela eta ondorioz, antolatzea, deskribatzea eta beste hainbeste lan eskuragarri jartzeko.

Orainarte egindakoari gehitu behar diogu euskarri ikugarrian sortutakoaren ale digitaren bilketa eta kudeaketa, 2023ko urtarriletik aurrera, derigorrezkoa baita monografia eta aldizkakoen kasuan. Horrez gain, orain arte hain beste arreta ematen ez zitzaien beste material motatako aleei era (hau da: liburuxkak, kartelak, esku-orriak, orri-markatzaileak e.a.) lege gordailu zenbakia ematearen aldeko ahaleginetan gabiltza, funtsa aberatsagoa izateko.

Liburutegiak zuen komunitatean pisu handia du eta herrian sortzen denaren inguruan duzuen ezagutza itzela da. Herriko tokiko bildumaren alde egiten duzuen lanari begiratzea baino ez dago. Horregatik, ahal duzuen eran, idea hau zabaltzeko eskatuko nizueke: udal administrazioak, herriko taldeak, enpresak edo partikularrek jende artean banatzeko sortzen duten material bibliografiko ikugarri **guztiek** lege gordailu zenbakia behar dute.

Ez da prozedura zaila, automatikoa da, eskatu ala ematen dena eta zalantzak dauden kasuetan, hemen gaude laguntzeko.

Preserbaziorako funts-bibliografikoa kultura ondarearen ezinbesteko atala da, eta elkarlana beharrezkoa du guztion artean era egokian osatzeko.

Eskerrik asko.

https://www.euskadi.eus/erregistroa/lege-gordailuaren-erregistroa/web01-tramite/eu/



Atariak eta ateak

Sarearen lineako katalogoaren berritzea

Zamudioko liburutegiko sarrera-atea

www.katalogoak.euskadi.eus

Herri-jakituriak dio ez dela liburu bat bere portadarengatik epaitu behar, kanpoko itxurak zerbaiten edo norbaiten osotasuna epaitzeko aski ez direla transmititzeko. Kasu horretan, portada hitzak liburuaren azalari egiten dio erreferentzia, liburua biltzen, babesten eta apaintzen duen elementuari, eta erabaki egiten dugu epaitu nahi dugun ala ez.

Bibliotekonomiaren eta katalogazioaren munduan, ordea, portada edo ataria obra baten lehen orrialdeaz ari da, maiz liburuaren izenburua, egilearen izena eta inprimaketaren tokia eta urtea biltzen dituena. Fitxa katalografiko bat sortzeko orduan informaziorik garrantzitsuena duen orria da, eta horregatik informazio-iturri nagusitzat hartzen da.

Ataria



Etimologikoki, portada hitza puerta, atea, hitzetik dator, sarrera, barrura sartu eta nahi bezain sakon iritsi aurretik ikusten duguna. Liburu baten portada, liburutegi baten sarrera edo liburutegi sarearen katalogo digitalaren ataria... ate horiek guztiak ireki egiten dira entretenimendua, ezagutza, kultura eta hamaika aukera nahi dituztenen begien aurrean.

Liburutegi Zerbitzua lanean aritu da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogo kolektiboaren ataria berritu, eguneratu eta hobetzeko. Sareko katalogo digitala arakatu nahi duten irakurleen esperientzia hobetzeko itxura eta funtzionalitate berriak dituen ate digitala.

Atea ireki eta zuen begiekin epaitzera gonbidatzen zaituztegu, nahi izatekotan.

bilgunea
Euskadiko Katalogo Kolektiboa

Aubi
Autoritateen Katalogo Elebiduna

euskariana
Euskal kulturaren leiho digitala

eLiburutegia
Liburu elektronikoen mailegua

EFILM
Zinema linean

liburubila
Baliabideen bilatzaile konbinatua



Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea

Medialab, Tabakaleran, Donostian

Sarea zenbakitan

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen errendimendu-adierazleak 2025ean

2025ean, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek 2.837.820 mailegu egin zituzten, 2024an baino 22.635 gehiago. Gainera, 39.483 pertsona egin ziren liburutegietako erabiltzaile berri.

Sarearen funts bibliografikoa 8.453.358 ale izatera iritsi zen, eta urtean zehar 207.578 aleri eman zitzaien alta. Ale berri horiek herritarren eskura dauden funtsak berritzen eta zabaltzen laguntzen dute.

Bestalde, liburutegien arteko mailegu-zerbitzuak 458.563 eskaera jaso zituen, Sareko liburutegietako funtsak eskuratzea erraztuz eta baliabideen erabilera partekatua sustatuz.

Azkenik, 4.317.076 bilaketa egin ziren lineako katalogoan (OPAC), % 7,11 gehiago. Katalogo horrek Sareko liburutegietako funtsak kontsultatzeko eta aurkitzeko aukera ematen du.

MAILEGUAK GUZTIRA
2.837.820
+22.635

ALE KOPURUA
8.453.358

ALTA EMANDAKO ALEAK
207.578

ERABILTZAILE BERRIAK
39.483

LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA
458.563
+30.379

OPACEKO BILAKETAK
4.317.076
+286.486

Gehien irakurritakoak





Helduentzako monografiak gaztelaniaz

3.224 | *Alma negra*, Ibon Martín
3.064 | *Las que no duermen NASH*, Dolores Redondo
2.864 | *El secreto de la asistenta*, Freida McFadden

Helduentzako monografiak euskaraz

1.274 | *Hetero*, Uxue Alberdi
1.144 | *Maitasun kapitala*, Karmele Jaio
1.110 | *Pleibak*, Miren Amuriza



Haurrentzako eta gazteentzako monografiak gaztelaniaz

4.999 | *One Piece,* Eiichiro Oda
2.964 | *Naruto,* Masashi Kishimoto
2.603 | *Dragonball,* Akira Toriyama

Haurrentzako eta gazteentzako monografiak euskaraz

1.243 | *Txantxak sortzeko makina,* Romain Pujol, Vincent Caut
1.191 | *Arrosa koloreko bizitza!,* Romain Pujol, Vincent Caut
1.075 | *Labirinto magikoa,* Ibon Martín


Gehien ikusitakoak





Ikus-entzunezkoa gazteleraz

La infiltrada, Arantxa Echevarría | **266**
La casa, Álex Montoya | **212**
Un amor, Isabel Coixet | **211**



Ikus-entzunezkoa euskaraz

Bidasoa, Fermin Muguruza | **27**
Black is beltza, Fermin Muguruza | **16**
Agur Etxebeste!, Telmo Esnal y Asier Altuna | **12**



Irakurketa-klubak

Liburuez komunitatean gozatzea

Irakurketa-klubetarako liburu-sortak

Gure herri eta hirietako hainbat liburutegiren inguruan diren irakurketa-kluben artean batzuk —beste batzuk ez— lankidetzan dihardute Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuarekin eta Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultura Etxearekin koordinatuta, liburu sortak edo loteak erosi eta elkarri uzten. Beste kontu ezberdina da irakurketa-klubak beren kasa antolatzen eta kudeatzen dituzten liburutegi horiek, baina hemen ez gara ari horiei buruz.

Egun, 505 sorta edo lote daude eskuragarri proiektuan aktibo dihardu-ten 24 liburutegiren irakurle-klubentzat (liburutegiak soilik, sukurtsalak aintzat hartu gabe), orain aktibo ez dauden beste batzuk sartu baziren ere. Sorta horiei irakurketa errazeko beste 125 sorta gehitu behar zaizkie.

Liburutegi aktiboenak

Bestalde, iaz, liburutegi aktiboenak beren irakurketa-klubentzako sortak eskatzen Errenteriakoa, Eibarkoa eta Irungoa izan ziren (Gasteizko liburutegia alde batera utzita, hiri handi batekoa izanik, sukurtsal eta irakurketa-klub ugari baitauka).



Gehien eskatutako gaztelaniazko liburu-sortak

—*Tenemos que hablar de Kevin*, Lionel Shriver
—*Las hojas muertas*, Bárbara Jacobs
—*La vegetariana*, Han Kang



Gehien eskatutako irakurketa errazeko liburu-sortak

—*Trampa de fuego*, Núria Martí Constans
—*Ola de calor,* René Appel
—*Siete días en el lago*, Núria Martí Constans



Gehien eskatutako euskarazko liburu-sortak

—*Bekatua*, Goiatz Labandibar
—*Joana Maiz*, Yurre Ugarte
—*Dantzaldia*, Irène Némirovsky (itzulpena)



eLiburutegia

Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien plataforma digitala da, eta erabiltzaileei eduki digitalak internet bidez eskuratzeko aukera ematen die, modu eroso eta azkarrean.

Zerbitzu honen bidez, liburu elektronikoak, audio liburuak, egunkariak, eta bestelako baliabide digitalak mailegatu eta irakur daitezke, edonoiz eta edonon, eguneko 24 orduetan. Plataformak etengabeko bilakaera izan du bere ibilbidean zehar; bilduma eta eduki digitalak zabaldu eta eskaintzen dituen zerbitzuak modernizatu eta herritarren behar berrietara egokitu ditu.

Plataformaren edukia aberatsa, askotarikoa, anitza eta orekatua da; irakurketa sustatzeaz gain, filmak, dokumentalak eta telesailak ikusteko aukera ere eskaintzen baitu. Gainera, eLiburutegiak nabarmen laguntzen du euskararen sustapenean, presentzian eta normalizazioan, kalitatezko eskaintza digital eguneratua bermatuz. Erabilera erraza eta irisgarritasuna dira bere ezaugarri nagusietako batzuk, edozein gailututik konektatzeko aukera baitago, hala nola ordenagailu, tablet edo mugikorretatik.

Azken urteetan, eLiburutegiaren erabilerak goranzko joera nabarmena izan du. Zehazki, azken lau urteetan, eliburutegiak % 32ko hazkundea izan du bai mailegu kopuruan bai erabiltzaile aktiboen kopuruan. Datu horrek argi erakusten du irakurketa digitalaren interesa handitzen ari dela, eta, aldi berean, zerbitzuak kultura herritarrengana hurbiltzeko eta haien beharretara egokitzeko duen gaitasuna. Horrela, eLiburutegia tresna baliotsua bihurtu da gaur egungo gizarte digitalean, kultura eta ezagutza modu eraginkorrean zabaltzeko eta irakurketa sustatzeko.

https://www.euskadi.eus/ac37aELiburutegiaPublicaWar/home/maint


Maileguak eLiburutegian

2025eko hileko banaketa

2025ean, eLiburutegiak 165.575 mailegu erregistratu zituen; otsailean izan ziren gutxien (11.931), eta abenduan gehien (16.067). Mailegu kopuruak gora egin zuen uztailean eta abuztuan, eta, iraileko beherakadaren ondoren, etengabe hazi zen berriro urteko azken hiruhilekoan.

2025ean euskaraz gehien mailegatutako liburua →






Urteko maileguak guztira

Azken 12 urteetako bilakaera


Pandemian, 2020an, izandako goreneko kopuruaren eta 2023ra arteko beherakadaren ondoren, maileguek gora egin dute berriro, eta 2025ean 165.575era iritsi dira, 2024an baino % 12,8 gehiago. Kopurua 2020ko gehienekoaren (167.438) zertxobait azpitik dago oraindik.






Maileguak guztira, hilabeteka eta urteka

2025ean, hilabete guztietan 2024an baino mailegu gehiago egin dira, eta horrek liburutegi-zerbitzuaren erabileraren bilakaera positiboa eta iraunkorra erakusten du. Urteko mailegu kopururik handiena abenduan erregistratu da, 16.067 mailegurekin. 2020ko udaberriko ezohiko gorakadarekin alderatuta, 2025eko jarduerak maila altu eta egonkorra mantendu du urte osoan.



Maileguak guztira, urteka eta hilabeteka

2025eko hilabete guztietan 2019ko hilabete beretan baino mailegu kopuru bikoitza baino gehiago erregistratu da. 2021etik 2023ra bitarteko beherakadaren ondoren, zerbitzuaren erabilera berriro hazten ari da 2024az geroztik. Uztailean eta abuztuan maileguek gora egin ohi dute, eta horrek erakusten du udan zerbitzua asko erabiltzen dela.



Gaztelaniaz gehien mailegatutakoak

La península de las casas vacías
David Uclés

Alma negra Ibon Martín

Las que no duermen NASH
Dolores Redondo

El Clan Carmen Mola

El niño que perdió la guerra
Julia Navarro

Victoria Paloma Sánchez-Garnica

El albatros negro María Oruña

Invisible Eloy Moreno

La asistenta Freida McFadden

Todo muere Juan Gómez-Jurado

La saga de los longevos, 1. La vieja familia Eva G. Sáenz de Urturi

Un animal salvaje Joël Dicker




Euskaraz gehien mailegatutakoak


Maitasun kapitala Karmele Jaio
Pleibak Miren Amuriza
Hetero Uxue Alberdi
Miñan (epub-a) Amets Arzallus, Ibrahima Balde
Aitaren etxea Karmele Jaio
Asterix Galiarra René Goscinny, Albert Uderzo
Ezekiel Jasone Osoro
Miñan (audioliburua) Amets Arzallus, Ibrahima Balde
Asterix Gladiadorea René Goscinny, Albert Uderzo
Maren Alaine Agirre
Amorante frantsesa Miren Agur Meabe
Libe Alaine Agirre



SAILKAPENA

Maileguak udalerrika







Hiru hiriburuak maileguen sailkapenaren buru dira, Bilbo eta Donostia Gasteizen aurretik daudela. Gainerako udalerrien artean Getxo nabarmentzen da, Barakaldoren mailegu kopuruaren ia bikoitzarekin. BBK Mediatekak eta Elibrumek ere postu nabarmenak dituzte, eta horrek udal-sareen osagarri diren zerbitzuen pisua erakusten du.

*** Elibrum:** Irakurketa sustatzeko plataforma. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako programa pilotua.
*** BBK Mediateka:** Azkuna Zentroko liburutegia – Alhondiga Bilbao. Sarean integratuta, baina modu autonomoan Bilboko Liburutegien Sarean.
*** Arabako Foru Aldundia:** Ez ditu maileguak udalerrika bereizten; Arabako lurralde osoa hartzen du barne, Gasteizko udal-sareko liburutegiak izan ezik.

SAILKAPENA

Maileguak 1.000 biztanleko







Maileguak biztanleriarekin alderatuz gero, udalerri txikiak dira sailkapenaren buru, eta Abaltzisketa eta Mundaka nabarmentzen dira. Hiriburuak, mailegu kopuru osoan nagusi izan arren, lehen hogei postuetatik kanpo geratzen dira biztanleriaren araberako alderaketa honetan.

SAILKAPENA

5.000 biztanletik gorako udalerriak

Mailegu kopurua 1.000 biztanleko







5.000 biztanletik gorako udalerrien artean, Tolosak, Getxok eta Zarautzek dituzte biztanleko mailegu gehien. Hogei udalerri nabarmenduetatik hamabi Gipuzkoakoak dira, eta Donostia da zerrendan ageri den hiriburu bakarra. Arabatik Amurrio baino ez da ageri, hautaketa honetako azken postuan.

SAILKAPENA

10.000 biztanletik gorako udalerriak

Mailegu kopurua 1.000 biztanleko






10.000 biztanletik gorako udalerrien artean, Tolosak, Getxok eta Zarautzek lehen postuei eusten diete. Gipuzkoak du berriro pisurik handiena sailkapenean: hogei udalerri nabarmenduetatik hamabi gipuzkoarrak dira —lehen sei udalerrietatik bost Gipuzkoakoak dira—. Amurrio da oraindik Arabako udalerri bakarra.

Erabiltzaile berriak 2025ean

Ia 12.000 erabiltzaile berri

2025ean, eLiburutegiak 11.946 erabiltzaile berri izan zituen. Alta kopurua apalagoa izan zen udaberrian eta udan, eta nabarmen egin zuen gora udazkenean. Erabiltzaile berrien % 46,2 azken hiruhilekoan sartu ziren, eta azaroa izan zen hazkunderik handieneko hilabetea (2.139 erabiltzaile).






eLiburutegiako erabiltzaileak

Urtez urte hazten

eLiburutegiako erabiltzaile kopurua etengabe hazi da azken urteotan —2020an, pandemiari lotuta, alta kopuruak nabarmen egin zuen gora—.


2025aren amaieran 86.685 erabiltzaile zituen, 2024aren amaieran baino 11.946 gehiago, hau da, % 15,98ko hazkundea.





Erabiltzaile berriak, urteka eta hilabeteka






eLiburutegiako aleak

35.000 ale baino gehiago

Funtsa 2024an 33.141 ale izatetik 2025ean 35.720 ale izatera igaro da, 2.579 aleko hazkundearekin (+% 7,78).



2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
4.500	10.762	13.500	15.190	16.679	19.360	21.625	23.911	26.217	30.631	33.141	35.720





Sare osoko eFilm zerbitzuaren datuak. Liburutegika banakatu gabe.

IKUS-ENTZUNEZKOAK GUZTIRA
6.379

MAILEGUAK GUZTIRA
8.324

ERABILTZAILE AKTIBOAK
1.630

ERABILTZAILE BERRIAK
2.537

ERABIL-TZAILEAK
24.983

*** Erabiltzaile aktiboak:** 2025ean zerbitzuan maileguren bat hartu dutenak.
*** Erabiltzaile berriak:** 2025ean zerbitzura lehen aldiz sartu direnak.
*** Erabiltzaileak:** Zerbitzua abian jarri zenetik maileguren bat hartu dutenak.

eFilmen gehien mailegatutako filmak

Gehien mailegatutako filmen artean Europako zinema da nagusi, bereziki giza harremanak eta gatazka sozialak ardatz dituzten dramak eta komedia erromantikoak. Hautaketak 2001etik 2024ra bitarteko ekoizpenak biltzen ditu, film berriak eta denboran zehar interesa mantendu duten beste batzuk uztartuz, hala nola Amélie.

La delicadeza David y Stéphane Foenkinos
Amélie Jean-Pierre Jeunet
El 47 Marcel Barrena
Herida Halle Berry
En un mundo mejor Susanne Bier
El juego del amor Robert Benton
El regreso de las golondrinas Li Ruijun
Si Dios quiere Edoardo Falcone
Lo que el día debe a la noche Alexandre Arcady
La sociedad literaria Mike Newell



112



87



81



71



50


49



49



47


47



47



Aldizkariak

Aldizkari digitalak zenbakitan

Irakurketa Publikoko Sareko erabiltzaile guztien datu orokorrak.
Ezin dira liburutegika banakatu.

ALDIZKARIAK GUZTIRA
15.255

MAILEGUAK GUZTIRA
2.706

ERABILTZAILE AKTIBOAK
859

ERABILTZAILE BERRIAK
1.871

ERABILTZAI-LEAK
7.633

*** Erabiltzaile aktiboak:** 2025ean zerbitzuan maileguren bat hartu dutenak.
*** Erabiltzaile berriak:** 2025ean zerbitzura lehen aldiz sartu direnak.
*** Erabiltzaileak:** Zerbitzua abian jarri zenetik maileguren bat hartu dutenak.



GRANADA

Liburutegi Publikoen XII. Kongresu Nazionala

Berrikuntza, komunitatea eta eskubide kulturalak

Liburutegi Publikoen XII. Kongresu Nazionala Granadan egin zen 2025eko azaroaren 5etik 7ra, «Liburutegi publikoak: non kultura eskubidea baita» lelopean, eta liburutegi-sektorearen gogoeta-gune nagusietako bat bihurtu zen. Kultura Ministerioak antolatu zuen topaketa, Andaluziako Juntarekin lankidetzan, eta gaur egungo bi erronka handitan jarri zuen arreta: eskubide kulturalak eta alfabetatze mediatikoa eta informazionala.

Biltzarra funtsezko ideia batetik abiatu zen: liburutegi publikoak dagoeneko ez dira liburuak mailegatzeko eta kontsultatzeko guneak soilik, baizik eta funtsezko erakundeak ere badira kulturarako berdintasunezko sarbidea bermatzeko, desinformazioari aurre egiteko eta herritarren parte-hartzea indartzeko. Digitalizazioak, adimen artifizialak eta gehiegizko informazio-ugaritasunak markatutako testuinguru batean, liburutegiek gero eta paper estrategikoagoa bete behar dute gizarte kritiko, inklusibo eta demokratikoen eraikuntzan.



Liburutegi publikoak dagoeneko ez dira liburuak mailegatzeko eta kontsultatzeko guneak soilik, baizik eta funtsezko erakundeak ere badira kulturarako berdintasunezko sarbidea bermatzeko, desinformazioari aurre egiteko eta herritarren parte-hartzea indartzeko.

Biltzarraren ardatzak: kultura, informazioa eta herritarrak

Erakundeak eskubide kulturalen inguruan egituratu zuen programa, ardatz nagusi gisa, eta bat egin zuen Kultura Ministerioak 2025ean sustatutako Eskubide Kulturalen Planarekin. Aldi berean, alfabetatze mediatikoa eta informazionala landu ziren, hau da, ingurune digital konplexu batean informazioa eskuratzeko, aztertzeko eta kritikoki ebaluatzeko gaitasuna. Adimen artifizialari, berrikuntza teknologikoari eta liburutegi-zerbitzu berriei buruzko eztabaidak ere izan ziren.

Liburutegiaren ikuspegi tradizionala planteatu beharrean, saioek erakutsi zuten ekipamendu horiek zentro komunitario, etengabeko ikaskuntzarako gune eta gizarte-eraldaketarako eragile aktibo bihurtu direla.

Lurraldeari eta komunitateari lotutako ekarpena


Testuinguru horretan, Muskizko Liburutegi Publikoaren parte-hartzea bereziki nabarmendu zen liburutegiak, kultura-ondarea eta garapen komunitarioa lotzeko duen gaitasunagatik.

Adibide esanguratsuenetako bat «Itsasontziak Atean: Muskizko Itsas Ondarearen Berreskurapen eta Hedapen Digitala, Liburutegi Publikoak bultzatua» esperientziaren aurkezpena izan zen, biltzarraren jardunbide egokien saioaren barruan. Proiektuak erakutsi zuen liburutegi publiko bat eragile aktibo bihur daitekeela tokiko ondarea babesteko, digitalizatzeko eta zabaltzeko, herritarrak memoria kolektiboaren eraikuntzan inplikatuz.

Esperientzia hori bereziki adierazgarria da euskal liburutegi askok azken urteotan garatu duten ereduan: komunitateari irekitako liburutegiak, lurraldearekin konprometituak eta kultura, teknologia eta herritarren parte-hartzea integratzeko gai direnak. Dokumentu-zerbitzuak eskaintzeaz gain, liburutegi horiek gizarte-kohesiorako eta kultura-ondare propioari balioa emateko guneak dira.

Etorkizunari begira

Granadako Biltzarrak argi utzi zuen liburutegi publikoek erronka konplexuei egin behar dietela aurre: desinformazioa, aldaketa teknologikoak, adimen artifiziala edo irakurketa-ohituren eraldaketa. Hala ere, agerian geratu zen liburutegiak oraindik ere funtsezko erakundeak direla ezagutza eta kulturarako sarbide demokratikoa bermatzeko. Paper hori, garrantzia galdu beharrean, gero eta beharrezkoagoa da gaur egungo testuinguruan.



Liburutegi Zerbitzua

liburutegi.zerbitzua@euskadi.eus

© Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA